

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Alli kontseilaria izan da buru Nafarroako Boluntariotzaren Mahaia osatzeko saioan

*Aurrez, iragan azaroan Iruñean izan zen Boluntariotzaren Estatuko 16. Biltzarrean aurkeztutako panelik eta komunikaziorik onenari sariak eman dizkie.*

Martes, 28 de enero de 2014

Íñigo Alli Gizarte Politiketako kontseilaria izan da buru, gaur goizean, Nafarroako Jauregiko Joaquín Elizondo aretoan egin den bileran. Bilera horretan hausnartu eta parte hartu dute Foru Gobernuak, gizarte-erakundeek eta boluntariotzaren alorrean aritzen diren Nafarroako beste erakunde batzuek.



Alli kontseilaria izan da buru Nafarroako Boluntariotzaren Mahaia osatzeko bileran.

Gaurkoaz gain, iragan urteko [ekainean](#) eta [urrian](#) Nafarroako Gobernuak boluntariotzan aritzen diren erakundeekin bilerak izan zituen, baita 2013ko azaroaren 26tik 28ra Iruñean egin zen [Boluntariotzaren Estatuko 16. Biltzarra](#) prestatzeko ere.

Bileran, Nafarroako Boluntariotzaren Estrategia bat sortzeko eta iaz hasitako Boluntariotzaren Foru Legearen garapen-prozesua amaitzeko talde-lanak sortuko direla adostu da. Biztanleria aktiboa, boluntariotzan jarduten diren erakundeak sendotzea eta agente inplikatu guztien arteko koordinazioa lortzeko sentsibilizazioa bezalako gaiak eztabaidatuko dira.

Halaber, aurten, itxura guztien arabera, Boluntariotzako Erakundeen Errolda egiten amaitu, Nafarroako Boluntariotzaren Batzordea eratu eta Foru Gobernuaren baitan departamentuen arteko batzorde bat sortuko da.

### Boluntariotzako Estatuko Biltzarreko sarien banaketa

Boluntariotzaren Mahaiaren bileraren aurretik, Íñigo Alli Gizarte Politiketako kontseilariak Boluntariotzaren Estatuko 16. Biltzarreko komunikazio eta panel onenaren sariak banatu ditu Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan.



Alli kontseilaria eta Mariano Oto zuzendari nagusia Itziar Martínez Hegoak elkarteko kidearekin.

Lehen saria Hegoak elkartearentzat izan da, "[El estudio como herramienta para adaptarnos a la realidad de las personas voluntarias](#)" (Azterlana, boluntarioen errealitatera egokitzeko bitartekoa) aurkezpena egin baitzuen. Bertan, elkarteak, elkarteko jardueretan parte hartzen duten boluntarioen profila aztertu ondoren, lortutako ondorioak eta metodologia azaltzen ditu. Saria Itziar Martínez Arbeloak jaso du; bera arduratu zen aurkezteaz.

Bestalde, [Tantaka](#)-k jaso du biltzarrean aurkeztutako panel onenaren saria. Tantaka Nafarroako Unibertsitateko denbora solidarioaren bankua da. Alli kontseilariak Pablo Callejo Goena panelaren egileari eman dio saria.

### Boluntariotzaren Mahaiko partaideak

Boluntariotzaren Mahaiaren buru da Gizarte Politiketako kontseilaria, eta Foru Gobernuako, gizarte-erakundeetako eta ekintza boluntarioarekin erlazionatutako Nafarroako beste erakunde batzuk osatzen dute.

Nafarroako Gobernuaren aldetik, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko; Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko; Hezkuntzako; Osasuneko; eta Gizarte Politiketako Departamentuko ordezkariak daude.

Mahaia osatzen duten gizarte-erakundeak hauek dira: Nafarroako Boluntariotzaren Plataforma, Anfas, Asvona, Elikagaien Bankua, Nafarroako GGKEren koordinatzailea, Cormin, Gurutze Gorria, DYA, Futuna, ONCE, Profesionales Solidarios, Pobreziari eta Gizarteko Bazterkeriari aurre egiteko Nafarroako Sarea, SEI, Itxaropenaren telefonoa, Boluntariotza Geriatrikoa eta jubilatuen elkarten ordezkari bat.

Amaitzeko, honako erakunde hauetako ordezkariak ere parte hartzen dute: Nafarroako Udal Eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea, Caja Navarra Fundazioa, "la Caixa" Gizarte Ekintza, UGT, CCOO eta CEN.

### Galería de fotos



Pablo Callejo, Tantaka-koa, Alli kontseilariarekin eta Mariano Oto zuzendari nagusiarekin.

Tantaka-k biltzarren aurkeztu zuen eta saria jaso duen panela.